



AMEZKETAKO UDALA



AMEZKETAKO UDALEKO GIMNASIOAREN ERABILERARAKO ARAUDIA

Amezketako Udaleko Erabilera Anitzeko Zentroaren lehenengo solairuan kirola egiteko materiala aurkitzen da eta berau erabiltzeko arautegia.

Lehena. Amezketa Udalak udal jabetzakoa den eraikineko lehen solairuko gimnasioa soinketa egiteko materialez hornitu du eta bere erabilerarako aukera eskaintzen du.

Gimnasioaren erabilerarako funtzionamendua:

Bigarrena. Eskatzaileak eskaera inprimakia beteko du, dagokion prezio publikoa ordaindu, eta honekin batera, arautegi hau beteko duela ere sinatuko du.

Hirugarrena. Udalak baimena emango dio, giltza inteligena eskatzailearen eskura jarritz. Baimena eta giltza pertsonalak izango dira.

Laugarrena. Gimnasioaren erabilera asteko egun guztietan egin daiteke, astelehenetik igandera, goizeko 6.30etatik, gaueko 10:00etara.

Bosgarrena. Gimnasioko argia eta berogailua erabiltzen direnean, azken erabiltzailea izanez gero gelatik irteterakoan dena itzali beharko da. Gimnasioa txukun izatea guztion ardura da eta hau mesdetzearren erratza eta fregona jarriko dira. Bestalde, materialetan sor daitezkeen matxurak Udalari jakinaraziko zaizkio.

Seigarrena. Galerazita egongo da:

- Gimnasiotik materiala ateratzea.
- Bertan erretzea eta jatea.
- Baloian, pelotan etab jolastea.
- Kirola egiteko prestatuta ez dauden oinetakoekin joatea.

Zazpigarrena. Gomendatzen da:

- Kirola egiteko prestatuta dauden oinetakoak erabiltzea.
- Bertako materiala era egokian erabiltzea, lesioak etab sahiesteko.
- Kirola egiten hasi aurretik, 5-10 minutuko berotze ariketak egitea.
- Aparatu bakoitzaren neurriko erabilpena egitea, besteek ere erabiltzeko aukera izan dezaten.
- Argiak itzaltzea ez ahaztea eta gela txukun mantentzea

Zortzigarrena. Desgaitasuna duen pertsonaren bat erabiltzaile gisa gimnasioan egon ezkeror, beste erabiltzaileek desgaitasuna duen pertsonarekiko begirunea eta sentsibiltatea erakutsiko dute aparatuak erabiltzeko garaian.

Bederatzigarrena. Udalaren jabetzakoa den eraikinean dagoen kirol materialarekin norberak egiten duen jarduera fisikoaren ardura bakoitzaren esku dago, Amezketako Udalak horren aurrean ez du inolako erantzukizunik izango.

Lokalaren erabiltzaileak:

Hamargarrena. Gimnasioaren erabiltzaile izateko eta baimena eskuratzeko 16 urtetik gorako adina izan behar da.

Lokala erabiltzeagatiko prezio publikoa:

Hamaikagarrena. Udalak lokala eta lokaleko materiala erabiltzeko ematen duen baimena eta eskaintzen duen zerbitzua pertsonala da eta prezio publiko bat ordaindu beharko da, ekitaldi bakoitzerako onartzen diren Zerbitzu Publikoak eskaini eta Jarduera Administrazioak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen 6. Ordenantza Fiskalean jasota egongo dena. Amezketan erroldatutakoak eta erroldatuta ez dauden artean prezio publikoa desberdina izango da.

Araudia ez betetzea:

Hamabigarrena. Baimena pertsonala denez, partaide direnen zerrenda lokalean ikusgai egongo da. Baimenik gabe norbait bertara joango balitz, partaideen ardura izango da hari ohartaraztea. Bi hutsegite egiten direnean, giltza intelijentea izateko eskubidea ukatuko zaio urtebetez.

Hamahirugarrena. Erabiltzailearen batek araudi honetan jasotakoa betetzen ez badu, aurreko bi puntuetan aipatu bezala, bi aldiz ohartarazi eta giltza intelijentea izateko eskubidea ukatuko zaio urtebetez.

Hamalagarrena. Udal arduradun edo langileak edozein momentutan gimnasioan sartzeko ahalmena izango dute, gimnasioaren erabilpenaren egokitasuna eta erabiltzaileen bazkide izaera ikuskatzeko, gimnasioaren erabilpen zuzena bermatze aldera.

Hamabosgarrena. Giltza intelijentea, galdu edo hondatuko balitz, ordezkioa emango zaio eta bere balioa erabiltzaileari kobratuko zaio.

Azken xedapena:

Araudi hau 2019ko apirilaren 17an Alkatearen Dekretuz onartutakoa da eta egun hori geroztik dago indarrean eta aldatzea edo ezerezteak erabakitzen ez den bitartean indarrean jarraituko du.